

ONARPEN PROZEDURA, 2023/2024 IKASTURTEAN UPV/EHUren MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEAN IKASTEN JARRAITZEKO MEDIKUNTZA, ODONTOLOGIA, FISIOTERAPIA ETA ERIZAINZAKO GRADUETAN

1. Araua aplikagarriak

- Ekainaren 6ko 412/2014 Errege Dekretua, graduiko unibertsitate ikasketa ofizialetan ikasleak onartzeko prozeduren oinarritzko arautegia ezartzen duena.
- ERABAKIA, 2023ko otsailaren 27koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Graduaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren arloko errektoreordearena, Graduiko Ikasketen Gestiorako 2023/2024 ikasturteko Arautegia argitaratzeko dena.
- ERABAKIA, 2023ko otsailaren 23koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseilurena, 2023/2024 ikasturtean graduiko ikasketara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedura onartzeko dena.

Unibertsitateko ikasketak hasita dituzten ikasleak onartzeko prozedura Graduiko Ikasketen Gestiorako 2023/2024 ikasturteko Arautegiko 7. artikuluan dago araututa.

2. UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen arautegi espezifikoaren Medikuntza, Odontologia, Fisioterapia eta Erizaintza graduatarako (2023/2024 ikasturtea)

1. artikulua.- Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

Ikastegiak eskaintzen dituen ikasketa ofizialetakoren bat (Medikuntza, Odontologia, Erizaintza eta Fisioterapia) UPV/EHU ez den unibertsitate batean – Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitatea zein eremu horretatik kanpokoahasita izanik ikasketa horietan UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean jarraitu nahi duten ikasleek espedientea lekuz aldatzeko eskaera aurkeztu beharko dute **2003ko ekainaren 19tik 30era bitartean, fakultatearen webgunean izena emateko egongo den prozedura elektronikoa bitartez**. Prozedura horrek bi fase izango ditu: 1. fasea, lekualdaketarako onarpen notaren kalkulua; 2. fasea, hautaketa prozesua. Ikaslea ezingo da sartu ikastegian lekualdaketaren bidez aurretik hasita dituen ikasketak egin nahi dituen berberak ez badira. Eskaerak bakarrik aurkeztuahal izango dira plazen eskaintza ofizialean agertuko diren maila eta titulazioetarako, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen webgunean argitaratuko den deialdiarekin bat etorrira.

Espedientea lekuz aldatzeko eskatzen den dokumentazioa eskaera elektronikoa erantsiko zaio, horretarako egongo diren eremuetan. Gainera, webgunearen bidez betetako **eskaera elektronikoa sinatuaren kopia inprimatu bat** Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko idazkaritzan bertan aurkeztuko da, **2003ko ekainaren 19tik 30era bitartean, hitzordua eskatu** ondoren helbide honetan: <https://www.ehu.eus/eu/web/medikuntza-erizaintza-fakultatea/idazkaritza-aurretiko-hitzordua>. Halaber, dokumentazioa eta betetako eskaeraren kopia bidali ahalko dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 16. artikuluan aipatzen diren moduetako batean. Azaldutakoa aplikatuko da baita ere unibertsitateko ikasketa ofizialak hasita dituzten eta goi mailako eta errendimendu handiko kirolariak diren ikasleen kasuan.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1. NANaren edo pasaportearen fotokopia.
2. Lekualdaketa egiteko eskaera elektronikoa, behar bezala beteta. Eskaera

elektronikoaz gainera, eskaera inprimatu beharko da bete ondoren, sinatu, eta aurkeztu. Bertan sartuta dago sinatu beharreko adierazpena, eskaeran aurkeztutako datuen eta dokumentazioaren egiazkotasunari buruzkoa.

3. Izena modu elektronikoa emateko prozedura fakultatearen webgunean jarriko da, eta irekita egongo da dokumentazioa aurkezteko epean (**2003ko ekainaren 19tik 30era bitartean**).
4. Hautaprobetako, unibertsitatera sartzeko ebaluazioko edo proba baliokideko txartela (jatorrizkoa edo fotokopia erkatua). Unibertsitatera sartzeko ebaluazioko edo proba baliokideko kalifikazioa egiaztatu behar da, unibertsitaterako sarrera nota (USN), graduan onartua izateko nota (GON) eta, halakorik dagoenean, graduan onartua izateko proba espezifikoen emaitzak barne. Gutxienez bi dezimal adierazi behar dira. Proba espezifikoetako gaiak izango dira UPV/EHUren webgunean argitaratuko direnak sarbide orokorrerako, onartuta daudenak ikastegiko titulazioetan sartzeko (biologia, kimika eta abar).

Unibertsitate aurreko ikasketak Europar Batasuneko herrialde batean egin dituzten ikasleen kasuan, bai eta Europar Batasuneko ez den herrialde batean egin dituzten ikasleen kasuan ere (herrialde horrekin elkarrekotasun hitzarmena izan zein ez), unibertsitatera sartzeko ebaluazioko kalifikazioa kalkulatu da unibertsitatera sartzeko prozedura orokorrean zehaztutakoari jarraiki (ikus UPV/EHUren 2023ko otsailaren 23ko Erabakia, 2023/2024 ikasturtean UPV/EHUko graduko ikasketetara sartu eta ikasketetan onartua izateko prozedurari buruzkoa; 1.4 eta 1.5 artikulua). Hau da, kasu horietan guztietan unibertsitaterako sarrera nota (USN) izango da UHUNek emandako agirian agertzen dena; eta graduan onartua izateko nota (GON) kalkulatzeko kontutan hartuko dira unibertsitatera sartzeko ebaluazioko onarpen faseko probak (Espainiako edozein unibertsitatetan egindakoak) eta/edo UHUNen Gaitasun Espezifikoko Probetako kalifikazioak.

Unibertsitaterako sarrera nota ofiziala (USN) egiaztatzen duten dokumentuak ez badira aurkeztu aurreko pasartean adierazi den moduan, **bost kalifikazioa jarriko da**. Ez badira aurkeztu graduan onartua izateko nota (GON) ofiziala egiaztatzen duten dokumentuak, edo graduan onartua izateko proba espezifikokoak egiaztatzen dutenak, **nota izango da USNko nota bera**.

5. Zatika egindako unibertsitate ikasketen ziurtagiri akademiko zehatza (jatorrizkoa edo fotokopia erkatua).
 - a) Dokumentu horretan honako hauek agertu beharko dira: gaitututako gai/irakasgai guztien izena eta kalifikazioa, gai/irakasgai horiei dagokien maila eta gaitututako gai/irakasgai bakoitzaren ECTS, kreditu edo ordu kopurua, hala dagokionean.

Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitate batean egindako kredituak ECTS ez badira edo ikasketen planak kreditutan egituratuta ez badaude, eskaera onartzeko aurkeztu beharko da, orain arte aipatutakoez gain, ziurtagiri bat non adieraziko diren matrikulatutako mailetan oraindik gaitutu gabe dauden gai/irakasgai guztien izena eta, hala dagokionean, gaitutu gabeko gai/irakasgai horien kreditu edo ordu kopurua.
 - b) Gainera, ziurtagirian laburbilduta agertu beharko da jatorrizko titulazioan gaitututako nahitaezko gai/irakasgaien ECTS, kreditu edo orduen kopuru osoa, bai eta gai/irakasgai horien batez besteko nota ere, ECTS, kreditu edo ordu kopuruaren arabera haztatua (ikus beherago).

Europako Unibertsitate Eremuko unibertsitate batean egindako ECTS kredituak ez badira, orain arte aipatutakoez gain, maila bakoitzeko eta jatorrizko titulazio osoaren laburpena aurkeztu beharko da, informazio hau emanda: nahitaezko irakasgaien kopuru osoa (gaitutuak eta gaitutu gabekoak) eta kreditu edo orduen kopuru osoa. Zenbaki horiek erabiliko dira kalkulatzeko lekualdaketarako onarpen nota (LON) eta/edo lehentasun nota (LN) eta, hortaz, **aurkeztu ez badira, ezingo da tramitatu eskaera**. Kreditutan egituratuta ez dauden ikasketen planen kasuan, kreditu baliokideak honela kalkulatu dira: 10 ordu kreditu bat izango dira eta, ordu kopurua agertzen ez bada, urteko

irakasgaiak 12 kredituren parekotzat hartuko dira eta seihileko irakasgaiak 6 kredituren parekotzat.

Espediente akademikoaren batez besteko nota 0-10 bitarteko eskalan adieraziko da, 1125/2003 EDn ezarritakoaren arabera kalkulatuta. Ikaslea atzerriko sistema batetik badator, **atzerrian egindako ikasketen batez besteko notaren baliokidetza agiria** aurkeztu beharko du. Agiri hori Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren webgunearen bidez eskatu behar da. Gainditutako gai/irakasgaien batez besteko nota modu haztatuan kalkulatu beharko da kasu guztietan, honela: gainditutako gai/irakasgaien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen batura, horietako bakoitza gai/irakasgaiari dagokion kalifikazioaren balioarekin biderkatuta, eta guztia zati gai/irakasgai horien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopuru osoa.

- c) Dokumentuen itzulpena. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeko 16.1 artikulua arabera, dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoaren bi hizkuntza ofizialetako batean aurkeztu behar da, euskaraz edo gaztelaniaz. Hortaz, bat etorrita prozedura horiei dagozkien arauak diotenarekin, prozeduretan ondorioak izan behar dituzten agiriak atzerrian emandakoak badira, euskara edo gaztelaniara egindako itzulpen ofiziala aurkeztu beharko da (hizkuntza horietako batean eman ez badira). Itzulpen ofiziala honakoek egin ahal izango dute: (i) zinpeko itzultzaile batek, behar bezala baimendua edo Espainian inskribatuta dagoena; (ii) espainiar estatuak atzerrian dituen ordezkari diplomatiko edo kontsularretako batek; (iii) eskatzailearen hiritartasunari edo dokumentuaren jatorriari dagokion herrialdeak Espainian duen ordezkari diplomatiko edo kontsularrak.
- d) Dokumentuak legeztatzea:
- Ez da inolako legeztatzerik eskatzen Europar Batasuneko estatu kideetan edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetan emandako dokumentuetarako.
 - 1961eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmena sinatu duten herrialdeetan emandako dokumentuak: nahikoa da herrialdeko agintari eskudunek emandako legeztatze bakarra edo "zigilua".
 - Andrés Bello hitzarmena sinatu duten herrialdeetan emandako dokumentuak (Andrés Bello Hitzarmeneko Hezkuntza ministroen XIX. Bileran onartutako 006/98 Erabakia, 2. artikuluko 6. atala): bide diplomatikoz legeztatu behar dira.
 - Gainerako herrialdeetan emandako dokumentuak: bide diplomatikoz legeztatu behar dira.
 - Beste herrialde batzuek Espainian dituzten agintari diplomatiko edo kontsuletxeek emandako dokumentuak Kanpo Harremanetako Espainiako Ministerioan legeztatu behar dira.
6. Bi hizkuntza ofizialetako batean, gaztelania edo euskara, **B2 mailaren parekoa den jakite mailaren egiaztagiria, unibertsitate aurreko ikasketak espainiar lurraldetik kanpo edo gaztelania hizkuntza ofizial ez den herrialdeetan** egin dituzten kasuan.
Medikuntzako Gradua euskaraz egitea eskatuko den lekualdaketetan, **euskarako B2 mailaren parekoa den jakite mailaren egiaztagiria** aurkeztu beharko da, edo batxilergoko ikasketak euskaraz egin direla egiaztatzen duena.
7. **Irakasgaien programak** eskaera elektronikoari atxikita baino ez dira aurkeztuko, **2. fasean:** irakasgaien programak jatorrizko ikastegiaren webgune ofizialean argitaratuta badaude, programetarako esteka adieraziko da ("gidaliburuak" eta abar). Gainerako kasuetan, jatorrizko unibertsitateak **erkatutako** programa atxiki beharko da, pdf formatuan.
8. Eskaera edo eskaera egiteko zirkunstantziak justifikatzeko aurkeztu nahi den beste edozein dokumentu.

2. artikulua.- Eskaera onartzeko gutxieneko baldintzak

Ikastegiak eskaera tramita dezan, beherago zehazten diren baldintzak bete beharko dira. Baten bat beteko ez balitz, eskaera atzera botako da.

1. Prozeduratik kanpo geratuko dira eskaera hauek:

- a) Bide elektronikoa erabilia **2003ko ekainaren 19tik 30era bitartean** osorik bete ez direnak. Ez da onartuko **bide elektronikoa erabilia osorik bete ez den eskaerarik** edo 2023ko ekainaren 30eko 24:00ak baino beranduago aurkeztutako eskaerarik (Espainia penintsularreko ordua).
 - b) Betetako eskaera elektronikoaren kopia bat eta eskatutako dokumentazioa **ez helaraztea 2003ko ekainaren 19tik 30era bitartean**, aurrez aurre Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko idazkaritzan (Leioako eraikinean), egoitza elektronikoaren bidez, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legeko 16. artikuluan adierazitako tokietan. Ez da onartuko 2023ko ekainaren 30eko 24:00ak baino beranduago aurkeztutako eskaerarik (Espainia penintsularreko ordua), edota osorik erregistratu ez denik (eskatutako dokumentu guztiak ez egotea edo betetako eskaera elektronikoaren kopia ez egotea).
 - c) Lekualdaketa **jatorrizko titulazioa helburuko titulazioa ez denean**. Lekualdaketa onartuko da bakar-bakarrik jatorrizko titulazioa eta helburuko titulazioa berberak direnean.
2. UPV/EHUⁿ ikasten jarraitzeko arauen parekoa den araubidea agortu duten eskatzaileak prozeduratik **kanpo geratuko dira**.
 3. Eskaerak onartuko dira baldin eta jatorrian **60 ECTS** kreditu gainditu badira, edo horren parekoa den maila oso bateko kreditu, ordu zein irakasgai kopurua jatorrizko erakunde akademikoan, UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatean eskaintzen diren titulazioetako batean (Medikuntza, Odontologia, Erizaintza eta Fisioterapia).
 4. Eskaerak aurkeztu ahal izango dira **plaza ofizial hutsak** dituzten maila eta ikasketetarako, kontuan hartuta Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen webgunean argitara emango den deialdia.
 5. **Ez dira onartuko** graduetako **lehen mailarako** aurkeztuko diren lekualdaketa eskaerak.
 6. **Lekualdaketarako plaza dela eta**, ikasleari atxikiko zaion maila izango da **jatorrian 30 ECTS kreditu edo gehiago gainditu gabe dituen mailaren hurrengoa edo goragokoa**. Ez da onartuko eskaerarik jatorrizko unibertsitatean egindako azken maila baino beheragoko maila baterako (esate baterako, ez da onartuko bigarren maila egiteko lekualdaketarik ikasleak 30 ECTS kreditu baino gehiago baditu gaindituta jatorrizko bigarren mailan).
 7. **Unibertsitate aurreko ikasketak Espainiatik kanpo** egin dituzten eskatzaileek **B2 mailaren parekoa den jakite mailaren egiaztagiria** egiaztatu beharko dute hizkuntza ofizialetako batean, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz. Jakite maila hori ez dute egiaztatu beharko gaztelania hizkuntza ofiziala den herrialdeetan jaiotakoek.
 8. UPV/EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen titulazioetako lehenengo mailan sartzeko eskaria handia denez, lekualdaketarako eskaera **ez da onartuko** 1. fasean **lekualdaketarako onarpen nota (LON) gutxieneko nota baino txikiagoa bada** (kasuan kasuko graduko lehen mailan ohiko bidetik sartzeko beharizan zen nota eskatzaileak unibertsitatean sartzeko ebaluazioa edo proba baliokidea egin zuenean). Horretarako, aplikazio informatikoak honela kalkulatu du LON:
$$LON = GON + T \frac{NECTS}{IECTS}$$
non GON den gradurako onarpen nota, arautegi honetako 1. artikuluko 4. eta 5. puntuetan azaldu den moduan; T den titulaziorako koefizientea (**T = 1,0 Medikuntza, Fisioterapia eta Odontologiarako; T = 3,0 Erizaintzarako**); NECTS den jatorrizko titulazioan gainditu diren nahitaezko gai/irakasgai guztien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen batura; eta IECTS den jatorrizko titulazioan mailabat osatzeko behar diren ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopurua guztira (Europako Unibertsitate Eremuan IECTS = 60). NECTS eta IECTS kalkulatu dira arautegi honetako 1. artikuluko 5.b puntuan azaldu den moduan. Gainera, jatorrizkotitulazioko mailetan kreditu kopurua beste bat bada, IECTS kalkulatzeko

kontuan hartuko da jatorrian egindako maileri dagozkien kreditu kopuruen batez bestekoa. Dena den, **2,5 balioa** ezarri dugu NCTS/IECTS koziantearen **gehieneko kopuru gisa. Eskaera ez da onartuko LON nota gutxieneko onarpen nota baino txikiagoa bada.** Gutxieneko nota hori izango da eskatzaileak unibertsitatean sartzeko ebaluazioa edo gradurako azken proba espezifikoaren egin zuen urtean UPV/EHUK argitaratu zuena modu ofizialean (kupo orokorreko ikasleek kasuan kasuko ikasketak egiteko izan zutena). Bi proba horietako notak kontuan hartuta, eskatzailearentzat komenigarriena den aukeratu da.

Unibertsitatean sartzeko proba gradua ezarri aurretik egin bazen, kalkulurako erabiliko den **gutxieneko onarpen nota izango da gradua UPV/EHUn ezarri zen urtean unibertsitateak argitaratu zuena modu ofizialean (kupo orokorreko ikasleek kasuan kasuko ikasketak egiteko izan zutena).**

9. Erizaintzako Gradurako eskatuko diren lekualdaketen kasuan, eta 8. puntuaren ezarritako baldintza behin beteta, maila esleitzeko LON nota lortu duten eskatzaileei, kontuan izango da Practicumaren edo praktika kliniko baliokideetan gauden kreditu kopurua.

3. artikulua.- Eskaerak hautatu eta antolatzeko irizpideak

Bigarren artikuluan aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskatzaileak ez dira pasatuko eskaeraren hurrengo fasera (bigarren fasea: hautaketa prozesua).

Lekualdaketerako eskaerak egiteko epea ireki baino lehen emango da argitara fakultatearen webgunean Medikuntza, Odontologia, Fisioterapia eta Erizaintzako graduetako maila bakoitzean gehienera baimenduko den plaza kopurua. Kopuru hori zehaztuko da kontuan hartuta maila bakoitzean 2023/2024 ikasturterako ofizialki aurreikusiko den matrikula eta ikastegiko titulazioetan onar daitezkeen ikasle gehienera kopuru ofiziala, betiere bat etorrita titulazio bakoitzerako UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluak onartutako kopuruekin.

- a) Gradu eta Graduondoko Ikasketen Gestiorako Arautegiaren arabera (I. kapituluko 7. artikulua), 971/2007 Errege Dekretuan definitutako goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien eskaerak lehentasuna izango dute kasuan kasuko ikasketetan lekualdaketerako dauden plazak esleitzean. Ezarritako epetik kanpo, esleitu gabeko plaza hutsak geratu direnean baino ez dira era honetako lekualdaketak onartuko.
- b) Aipatutako baldintzak betetzen dituzten ikasleek, gure fakultateko graduak titulazio ofizialean onartuak izan nahi badute, formulario elektronikoaren bigarren fasea bete beharko dute (2. fasea: hautaketa prozesua). Fase horretan informazioa eskatuko da, jakiteko jatorrizko titulazioan gauden irakasgaiak eta gure ikasketak planetako irakasgaiak baliokideak diren. Dekanotzak baliokidetza hori egiaztatuko du, **eskatutako mailaren egokitasuna berresteko.** Kontutan izan beharko da ez dela onartuko maila baterako lekualdaketerik aurrebaldintzak betetzen ez badira (adibidez, ez da Medikuntzako laugarren edo bosgarren mailarako eskaerarik onartuko Medikuntzako lehen hiru mailatan 12 ECTS kreditu baino gehiago izanez gero gauden gabe guztira; ez eta Erizaintzarako lekualdaketerik ere, kasuan kasuko Practicumak gauden gabe izanez gero). Ikastegiak egiaztatzen badu eskatutako maila ez dela egokia, azaldu diren arrazoiakoren batengatik, eskaera hautaketa prozesutik kanpo geratuko da.
- c) Bigarren artikuluko baldintzak beteko dituzten eskaera guztiak lehentasun irizpide batzuen arabera baloratuko dira, lehia dagoen kasu guztietan (eskaera baliokideak eskaintutako plazak baino gehiago direnean). Ikastegiak lehentasun nota (LN) kalkulatu du baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordenatzeko. Horretarako, formula hau aplikatu du:

LN = GON + 0,5*NN * F, non GON den gradurako onarpen nota, arautegi honetako 1. artikuluko 4. eta 5. puntuetan azaldu den moduan; NN den jatorrizko titulazioan gauden nahitaezko gai/irakasgaien batez besteko nota,

haztatuta ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopuruaren arabera, arautegi honetako 1. artikuluko 5.b puntuan azaldu den moduan; eta F den jatorrizko titulazioan gainditu diren nahitaezko gai/irakasgai guztien ECTS kredituen edo kreditu baliokideen batura (NECTS) zati jatorrizko titulazioko ECTS kredituen edo kreditu baliokideen kopurua guztira. NECTS eta titulazio osoko ECTS edo kreditu baliokideak kalkulatzeko jarraituko zaio arautegi honetako 1. artikuluko 5.b puntuan azaldu den prozedurari. Ikastegiak baldintzak betetzen dituzten eskaerak ordenatuko ditu, LN handienetik txikienera (bi dezimalekin), eta lekualdaketarako eskainitako plazak ordena horren arabera esleituko dira (ikus aurreko pasartea). Ez dira ikasturte bakoitzean eskainitako plazak baino gehiago esleituko, nahiz eta gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak egon zerrendan. Aldiz, gutxieneko baldintzak betetzen dituzten eskaeren kopurua lekualdaketarako eskainitako plazen kopurua baino txikiagoa bada, plazak ez dira beteko eta hurrengo ikasturteko (2023/2024) lekualdaketan eskainiko dira.

4. artikulua.- Erabakia, jakinarazpena eta matrikula

Behin-behineko erabakia idatziz baino ez da jakinaraziko, ikastegiaren webgunearen bidez, (idazkaritza – tramiteak) uztailaren amaiera aldera. Onartutako ikasleei jakinaraziko zaiezein izango den une horretatik aurrera jarraitu beharreko prozedura, fakultatean ikasten hasteko. Ikasleak plaza lortuz gero, espediente akademikoa lekuz aldatu beharko da. Tramite hori jatorrizko ikastegiak edo unibertsitateak egin beharko du, interesatuak UPV/EHU onartua izan dela egiaztatu ondoren. LekualdaketaUPV/EHUren ikastegi batetik beste batera egin bada ikasketa berberekin jarraitzeko, erabilitako deialdiak espediente berrian jasota agertuko dira, baina, edozelan ere, horrelakoetan, ikasleak bermatuta izango ditu bi deialdi.

Behin espedientea lekuz aldatuta, eskatzaileak aurretiko matrikula egiteko eskaera egin beharko du webgunean argitara emandako data baino lehenago, eta bertan adieraziko ditu eginak dituen eta baliokidetu nahi dituen ikasketa planeko irakasgaiak. Behin fase hau ebatzita, irailean zabalduko da matrikula ikastegiko idazkaritzan egiteko epea.